

getxoBerri



Getxo
bizi ezazu

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.501 zb.
www.getxo.net

Maiatzak 17
>> Maiatzak 27

2018

/ Nabarmentzekoak

- > 123 lan jaso dira Ramiro Pinilla Eleberri Laburraren Lehiaketan (3. or.)
- > "Ergela" komedia Areetan (3. or.)
- > Bizkaia Zubiko V. Maratoi Erdia egingo da igandean, hilak 20 (4. or.)

"Denon artean" liburuaren aurkezpena, Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko ikerketa (3. or.)



Zine tailerra. Astelehena, hilak 21, 11:30etik, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Denis Gamzeren "Mustang" pelikularen proiektzioa. Antolatzailea: EnClave Getxo.

XXXVI. Eskola Antzerki Jardunaldiak. Igandea, hilak 27, 11:30etik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:30ak arte, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

A-
GENDA

Romo Kultur Etxeak 31.326 bisita jaso ditu lehenengo hilabetean

Romoko Kultur Etxea zabaldu denetik hilabete bat igaro da eta, guztira, 31.326 bisita jaso ditu, apirilaren 9tik maiatzaren 8ra; hau da, 1.250 lagun eguneko. Zerbaki horiek Kultur Etxearen aurreikuspenak hobetzen dituzte, irekieraren 1. fasean zenbait zerbitzuen ordutegiak behin-behinekoak baitira eta oraindik ez direlako abian jarri erabilerara handia izango duten zenbait zerbitzu, esaterako erabilerara anitzeko aretoa eta Nagusien Etxea. Iragan asteartean zentroko erakusgela ireki zen eta, egun arte, honako hauek dira abiarazi diren zerbitzuak: heldu eta haurrentzako liburutegiak, haurtxoteka, Gure Gune gaztelekua, Kultur Etxearen tailerrak (arte aplikatuak, aretoko dantzak, jostintza, larrugintza eta ehoziri-lanak) eta gelak lagatzeko zerbitzua. Azken zerbitzu horrek hainbat erabiltzaile izan ditu, esaterako bertoko elkar-teak, abesbatzak, dantza eta antzerki taldeak, gorputz-adierazpen, tai chi eta dantza tailerretakoak, bilerak egin dituztenak...

Gainera, lehenengo hilabete honetan 12 bisita gidatu antolatu dira jendeak eraikina ezagutu ahal izateko eta, orain arte, 200 lagunek hartu dute parte horietan.

Nagusien Etxea

Halaber, ostiral honetan, maiatzak 18, Nagusien Etxeko oinarrizko zerbitzuak eskainiko dira RKEN: ile-apaindegia, emakume zein gizonentzat, masajista eta podologia ekipamendu berriekin eta billar-aretoa. Horiek guztiak, Getxon erroldatutako 60 urtetik gorako lagunei zuzenduta egongo dira. Horiez gain, maiatzaren 28tik aurrera gimnasioa ere erabili ahal izango dute nagusiek.

Horrek suposatuko du Lope de Vega kaleko eraikinean itxi egingo direla, kudeaketa eraginkorren logikari jarraituz, ez delako aurreikusten zerbitzuak bikoiztea. Egun dauden baliabideak aprobetxatzeko ere, aipatutako zerbitzuetan erabiltzen zirenak Zaharren Udal Egoitzara eramango dira, bertakoek erabil ditzaten.

Udalak Ibar Nagusien Etxeko ordezkariari bilera batean aditzera eman die beren jarduerak egiten segitu ahal izango dutela Lope de Vega kaleko Nagusien Etxean horretarako dagoen gunean, zentroa ixten ez den bitartean. Horrek esan nahi du elkarteko kideek beren jarduerak (solasaldiak, abesbatza, tailerrak...) egiten segitu ahal izango dutela beheko solairuan, Ibar Nagusien Etxeak jarduerak guztia RKEra eramateko Udalak egindako eskaintzari uko egin ondoren.



Thinking Fadura Europako 100 ekimen baino gehiagoren artean hautatua izan da, osasunean eta ingurumenean duen inpaktua neurtzeko

Europako INHERIT programak bizimodu osasungarriko eta ingurumena babestearen aldeko praktikak aztertzen ditu, eta *thinking* Fadura prozesua hautatu du Europako 100 ekimen baino gehiagoren artean, Fadurako kirol-parke berriak erabiltzaileen eta ingurunean pertsonen osasunean izango duen inpaktua neurtzeko. Asmo hori aintzat hartuta, Getxo Kirolak elkarlanean arituko da Basque Centre For Climate Change (BC3) zentroarekin, Udaleko hainbat arlotako teknikariekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren sailarekin. Udal gobernua uste du aukera itzela eskaintzen digula espazio publiko handi horrek Getxon nahiz erabiltzaileengan izango duen inpaktua zehaztasun zientifikoarekin ezagutzeko. Faduraren eraldaketa proiektuan aliatu

horiek izatea albiste garrantzitsua da eta, ezbairik gabe, lan horrek laguntza handia emango dio herritarrekin, abonatuarekin eta kirol erakundeekin jada burutzen ari den parte hartzeko prozesuari.

Proiektua Osasunaren Europako Sareak (EuroHealth-Net) koordinatzen du, eta Europako Batzordeko Horizonte 2020 ikerketa- eta berrikuntza-programaren finantzaketa jaso du. Taldearen lan-saioak maiatzaren amaiera aldera hasiko dira, eta aurrerapenak www.thinkingfadura.eus web orrialdean jasoko dira.

Azkenik, web orrialde berean jadanik eskuragarri dago parke berria diseinatzeko prozesuan modu digitalean parte hartzeko plataforma, hasita dauden tailerretara joan ezin duten pertsonen parte har dezaten.



Bizkerreri harrera Bigarren Mailara igotzeagatik

Bizkerreko emakumezkoen lehen taldeko jokalaria, baita teknikoak eta zuzendaritzako kideak ere, Udaltxeko osoko bilkuren aretoan hartu zituzten iragan astelehenean, hilak 14, Imanol Landa alkateak eta beste politikari batzuk. Bizkerrek Euskal Liga irabazi du eta Bigarren Mailara igotzea lortu du denboraldi bikaina egin ondoren. Alkateak esan zien "eredu ezin hobea zarete Kirolean lortutako guztia-rengatik, baina baita ere emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako bide jada geraezin honetan gizarteari egiten diozuen ekarpen guztia-rengatik".



MAIATZAK 17 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Villamonteko haur liburuetan, 18:00etan, "Puertas de papel" (gaztelaniaz) Pedro Ruiz-en eskutik (Alabazan). Sarrera dohainik.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-idazketa tailerraren eskutik. Juan José Saerren "La pesquiza" liburuarri buruz. Sarrera dohainik.

Getxo Zuzenean! Algortako Jolasurre tabernan, 20:00etan, Rudy Mental taldearen kontzertua (rocka).

Gizatiar Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Romoko San José Obrero parrokiako lokaletan, 18:15ean, hitzaldia: "Mujeres. Premio Nobel. Una lucha contracorriente". Hizlari: María Garballo.

MAIATZAK 18 OSTIRALA

Haur tailerra. "Zurekin buru-belarri, kontu kontari: Bizikidetzarako liburutegia". Adina: 4-6 urte (haurrek heldu batekin egon behar dute). Villamonteko (17:00etan) eta Romoko (18:30ean) haur liburutegietan. Euskaraz eta gaztelaniaz. Leku-kopuru mugatua. Izen-emateak: www.getxo.eus/apuntazaitz

Zine Kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Theodore Melfiren "Figuras ocultas" filmaren proiektioa eta foruma. Adin guztientzat. Sarrera: 2,90€.

Udaberriko kontzertu solidarioa. 20:15ean, Areetako Santa Ana parrokiaren, Areetxo taldearen emanaldia. Bidesari elkartearen alde.

MAIATZAK 19 LARUNBATA

Antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Ergela" (euskaraz) Joseba Apaolaza eta Sara Cozarrekin. 10€.

XXI. Botanika Jardunaldiak. Txangoa, Getxotik eta inguruetatik, landareak biltzeko. 09:00etatik 13:00ak arte. Saiklapena arratsaldean.

MAIATZAK 20 IGANDEA

Igandeko haur zinea. 2017/18 denboraldiaren amaiera. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El hijo de Bigfoot" filmaren proiektioa (gaztelaraz). Adin guztientzat. 2,10€.

XXI. Botanika Jardunaldiak. Erakusketa Tellagorri plazan (Algorta). 11:00etatik 14:00ak arte.

MAIATZAK 21 ASTELEHENA

Zine tailerra. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), 18:30ean, Denis Gamzeren "Mustang" pelikularen proiektioa. Antolatzaile: EnClave Getxo.

MAIATZAK 22 ASTEARTEA

XXI. Botanika Jardunaldiak. Hitzaldia: "Naturaren kontserbaziorako gizarte-ekimenaren beharra". Hizlari:

Lurgaia Fundazioa. 19:30ean Algortako Kultur Etxean.

AJANE. Txangoa Asturiasera (4 egun). Irteera: ekainak 5. Izena eman AJANERen lokaletan, Juan Bautista Zabala kalea 6. Astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00ak arte. Tel.: 609 00 83 42 Antolatzaile: AJANE-Algortako Nagusien Elkartea.

MAIATZAK 23 ASTEAZKENA

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean (Villamonte) Zirri Marra Arte Tailerreko ikasleen erakusketa. Ekainaren 14ra arte.

Mugarrik. Gizakien ahots-erregistroei buruzko triptikoa. 3. hitzaldia: "Voces masculinas". Hizlari: José Quisiant Montero (pianista). 19:30ean, Algortako Kultur Etxean. Antolatzaile: Mugarrik-Garapen elkarte pertsonal eta komunitarioa.

MAIATZAK 24 OSTEGUNA

Liburuaren aurkezpena. Manuel Macedare Pomboren "El milagro de Israel" liburuaren aurkezpena. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), 19:00etan.

Getxo Zuzenean! Romoko Kandilejas tabernan, 20:00etan, X Lignum taldearen kontzertua (rocka).

Gizatiar Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Romoko San José Obrero parrokiako lokaletan, 18:15ean, hitzaldia: "Cuestiones y dudas sobre nutrición e industria alimentaria". Hizlaria: Marcos Ferrer (nutrizionista).

XXI. Botanika Jardunaldiak. "Getxoko zuhaitzak eta zuhaixkak" eta "Landareak eta perretxikoak" liburuaren aurkezpena. Hizlariak: Angel Asensio, Enrique Elexpuru eta José Ugartebe. 19:30ean Algortako Kultur Etxean.

Odol ateratzea. Areetako Geltokia plazan. Goiz eta arratsalde.

MAIATZAK 25 OSTIRALA

Haur tailerra. "Zurekin buru-belarri, kontu kontari: Bizikidetzarako liburutegia". Adina: 4-6 urte (haurrek heldu batekin egon behar dute). Villamonteko (17:00etan) eta Romoko (18:30ean) haur liburutegietan. Euskaraz eta gaztelaniaz. Leku-kopuru mugatua. Izen-emateak: www.getxo.eus/apuntazaitz

Zine Kluba. 2017/18 denboraldiaren amaiera. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Aitor Asperen "Basakavigin: la matanza de los balleneros vascos" filmaren proiektioa eta foruma. 12 urtetik gora. Sarrera: 2,90€.

MAIATZAK 26 LARUNBATA

Ipuin kontaketa: Storytime. Getxo Elkartearen (Ogoño 1, Areetako), 11:00etan, "Gina Ginger & Charlie Chives" (ingelesez) familia osoarentzat, Kids&Us Getxo-Algorta-ren eskutik.

MAIATZAK 27 IGANDEA

XXXVI. Eskola Antzerki Jardunaldiak. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 11:30etik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:30 arte. Zenbait ikas-txetxetan GUABE elkartearen antzerki tailerretan egindako lana erakutsiko da.

"Berbodromoa"-ren ekitaldi berria, ostegunean, hilak 24

Berbodromoa, euskaraz elkartzeko gunea, Getxon egingo da berriro datorren ostegunean, hilak 24, Egizu elkarteak antolatuta, Udalaren babesarekin, eta *Getxon 24 orduz euskaraz* ekimen berriaren barruan. Berbodromoa-ren helburuak dira, besteak beste, euskara kalera ateratzea eta bere erabilera indartzea, euskara ikasten ari dena euskaraz hitz egitera animatzea eta euskaraz aritzeko aukera gutxi dituenari aukera horiek ematea. Azken finean, euskara eta euskaraz konpartitzea. Saioa hiru toki desberdinetan egingo da. Goizean, txanda bi-koitzean, 09:00etan eta 11:00etan, Romoko Santa Eugenia plazan aulkiak egongo dira taldeak egiteko; taldeak zenbakiekin zehaztuko dira eta bost lagunez osatutako egongo dira, dinamizatzaile bat eta beste lau lagun (euskaraz



dakien jendea euskara ikasten ari denarekin elkartuta); taldeko partaideak ordu beteko tartean arituko dira berriketa lasaian, interesez orokorreko hiru gai buruz: oporretako planen erredua, kontsumo ohituren aldaketak eta Euskaraldia 11 egun euskaraz egitasmoa indartzeko bideak (gai bakoitzarentzat hamabost minutu izango dira). Berriketa berriro egingo da 19:00etan, San Nikolas plazan; eta hortik abiatuko da, ondoren, 20:30 aldera, kantu jira. *Berbodromoa*-n parte hartzeko inskripzioa: www.egizu.eus/berbodromoa



Kutxabank eta Getxo Enpresaren arteko hitzarmena

GetxoEnpresa eta Kutxabankek indartu egin dituzte beraien arteko lankidetzaren egonkorren ildoak; eta neurri-sorta berri bat jarri dute GetxoEnpresara atxikitako profesional eta negozioen eskura, horien lehiakortasun gaitasuna hobetzeko diseinaturako dagoena. Izan ere, helburua da bertako merkataritza, zerbitzu-enpresa eta ostalaritza dinamizatea. Hitzarmena Javier Galán GetxoEnpresako lehendakariak eta Olatz Mancebo Kutxabankeko Zonako zuzendariak sinatu dute. GetxoEnpresako bazkide diren saltokiak online zerbitzu bat dute eskura eguneko 24 orduz; halaber, irtenbide finantza eta zerbitzu zehatzen (Merkataritza Mailegua, negozioziorako hipoteka-mailegua, negozio-kontuak, STak, arrisku anitzeko aseguruak, VISA txartelak...) inguruko soluzio-katalogo zabala ere eskuragarri dute. Bankuak enpresak sustatu eta animatzeko jarduerak babestuko ditu, enpresa elkarteak urte osoan antolatzen dituenak.



Danserien Bro Klègèrèg eta Itxas Argia dantza taldeei harrera

Amaia Agirre Komunikazio zinegotziak, Udaltxan ordezkaritza duten beste alderdi politikoen ordezkariekin, harrera egin zien, Udaltxeko osoko bilkuren aretoan, *Danserien Bro Klègèrèg* (Britainia) eta Itxas Argia (Getxo) dantza taldeei, joan den asteburuan, Andra Marin, XXVgarren Herrien Jaialdian parte hartu zutenak. Britainiako taldeak bere herrialdeko folkloreak erakutsiko dituen txiki bat egin zuen, bere erreperitoarioaren zati bat, hain zuzen.

Jardunaldia irakasleentzat, arreta eta emozioen kudeaketaz

Erabateko arretan eta emozioen kudeaketan hezteko irakasleentzat, Udalak, Etorikintza Fundazioarekin elkarlanean, bigarren urtez, antolatutako prestakuntza-jardunaldiaren titulua. Hori ekainaren 1ean, ostiralean, 09:00etatik 14:00etara, izango da Romo Kultur Etxean. Oraingo edizioan, "*Mindfulness teknika eta emozio ezberdinak landuko dira, heziketa emateko, ondoren irakasleek geletan emozio-gaitasunak landu ditzaten, horiek oso garrantzitsuak baitira drogak kontsumoan ez sartzeko, ezta arrisku jarrerak, adikzioak, antsietatea, depresioa... edukitzeko ere, nabarmendu du*" Elena Coriak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak. Izen-ematea doakoa da eta maiatzaren 25era arte egingo da zabalik.

Egitaraua

Egitaraua 09:00etan hasiko da, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak egingo duen jardunaldiaren aurkezpenarekin. 09:30ean, Ramón Leonato, Espainiako Meditazio Elkartearen presidentea eta *Mindfulness* ikastetxeak proiektuaren zuzendaria mintzatu da *Mindfulness* ikastetxeak: *Gizakiaren ikuspegi integrala* gaiaz. Praktika ariketa baten ondoren, 12:30ean, Gurutze Diez, San Nikolas ikastolako Haur Hezkuntzako teknikariak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin, duela bi urtez geroztik garatzen ari den *Sentitu*, emozio ezberdinen garapen bereziari buruzko aurkezpena egingo du. Emozio horien artean daude haserrea, tristura, beldurra... Informazioa eta izen-ematea: etorikintza.necrespo@getxo.eus /94 466 01 51.

BERRI LABURRAK

Lidergo eraldatzailerari buruzko prestakuntza.

Datorren maiatzaren 31n, 14:00etan, Getxolanen (Ogoño 1, Areetako) saio informatiboa egingo da MITen (Massachusetts Institute of technology) lidergo eraldatzailerari buruzko nazioarteko prestakuntzan parte hartu nahi dutenentzat. Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/es/getxolan/noticias/322>

Diruzaintza eta kutxako fluxuak.

Datorren asteazkenean, maiatzak 31, Getxolanen tailer bat egingo dute gai honen inguruan: *Diruzaintza eta kutxako fluxuak*. Tailerra 09:30etatik 12:30ak arte izango da eta bertan hitz egingo dute enpresaren diruzaintza nola kudeatu edo nola aurrea hartu balizko finantza eta likidezia zailtasunei buruz. Informazio gehiago eta izena emateko: <http://www.getxo.eus/es/getxolan/noticias/317>

LANPOLTA
SALEROSKETA
GALDUTAKOAK

- Errentan ematen dira lursailak ortu ludikoentzat, Larrañazubín. Tel.: 675 72 11 11.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Urgullu kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Bassai Comunicación Estratégica, S.L.
Inprimaketa: Bilbao Editorial Producciones S.L.U.
Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua
Gordailu legala: BI-388-87

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udako Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.
Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre Zuzendaria: Javier García.
Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.
Erredakzioa: Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.


Maiatzaren 21ean Romo Kultur Etxean

“Denon artean” liburuaren aurkezpena, Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko ikerketa

Datorren astelehenean, maiatzak 21, 19:30ean, Romo Kultur Etxean, RKEEn, *Denon artean*, Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenari buruzko bekaren liburua aurkeztuko da, David Beorlegi Zarranz egilearen eta protagonistak diren emakumeen elkarteetako kideen partaidetzarekin. 10.000€koa den beka Udalak ematen du, eta helburua izan da emakumeen asoziazionismoa eta asoziazionismo feministaren errealitate historikoa eta beren esanahi eraldatzaile (70. hamarkadatik gaur egunera arte) ulertzera laguntzea.

Azterlanak emakumeen elkarteei eman nahi die merezi duten protagonismoa, herrian aldaketa kolektiboaren zein banakoaren eragile izan direlako. Feminismo kontzeptua era zabal batez erakusten du. “Kontaketa koral eta polifoniko bat da horren emaitza, paisaia sozialean elkarrekin bizi diren eta bizi izan diren emakumeen eta kolektiboen aniztasun handiaren erakusle, hain helburuen eta bizi-proiektuen aniztasuna, historia-eragile diren aldetik ezarritako genero-ordena birnegoziatzeko hain ahalmena handitzen. Herritarrek aurkezpenera joateko animatu nahi ditugu, gure historia ezagutzeko aukera izango baita”, nabarmendu du Keltse Eiguren, Berdintasuneko zinegotziak.

Bestalde, David Beorlegik nabarmendu du ahots iturrien interpretazioak paper garrantzitsua izan duela eta “emakumeen errealitateari buruzko ulermena areagotzera laguntzen saiatu naiz, historia-diziplin



gutxi ikasitakoa. Liburuaren helburua ez da taldeak ikustaraztea soilik, baizik eta udalerrri hobea lortzeko lan egin eta lan egiten ari diren emakumei omenaldia eskaintzea ere. Emakumei adierazpen, heziketa eta ak-

tibismo feministarako kanalak eskaini dituztenei”, azaldu du ikerketaren egileak.

Liburua udalerriko liburutegi eta elkarrekin artean banatuko da, eta www.getxo.eus webgunean ere ikusgai izango da.

Epaimahaiaren erabakia irailaren 13ra jakinaraziko da

123 lan jaso dira Ramiro Pinilla Eleberri Laburraren Lehiaketan

Ramiro Pinilla Eleberri Laburren Lehiaketaren lehenengo deialdiak harrera oso ona izan du literatura zaleen artean. Guztira, 123 lan bildu dira lehiaketara; horietatik 23, egile getxotarrenak dira eta, gainerakoak, ia estatu osotik bidalitako idazkiak dira. Jasotako eleberri laburrak genero anitzekoak dira: historikoak, zientzia-fikzioak, eleberri beltzak, filosofikoak, kostunbristak, distopikoak eta sentimenduzkoak, besteak beste.

Kultur Etxeak sustatzen duen lehiaketa eta horren abiapuntuan da Pinillesca kolektiboaren proposamena, lehiaketa sortzeko. Bi helburu ditu proposamenak: idazle ospetsuaren memoria gorde eta literatura-sorkuntza bultzatu. Bi sari emango dira lehiaketan, euskarazko eta gaztelaniazko lanentzat, horietako bakoitza 6.000 eurokoa. Halaber, lana argitaratzeko 1.000 euroko beste laguntza bat ere jasoko dute irabazleek.

Epaimahaiak, literatura arloko aditu ospetsuk osatutakoa, irailaren 13an, hain zuzen ere Ramiro Pinillaren jaiotzaren urteurrenean, jakinaraziko ditu irabazlearen izenak, egun horretan ospatuko den sari-banaketa ekitaldian.

Haur lehiaketa

Helduentzako lehiaketarekin batera, Txiki Baskardo Kontakizunen Lehiaketa ere abiatu zen martxoan, udalerriko ikastetxeetako umeentzat. Ramiro Pinillaren lana ezagutzera emateaz gain, ekimen horren bitartez DBHko 1. mailako ikas-

leen artean literatura-sorkuntza ere bultzatu nahi da. Lehenengo edizioan Julio Caro Baroja, Artaza-Romo eta Santísima Trinidad ikastetxeek parte hartu dute eta, aurkeztu diren 70 lanen artean 7 hautatu dira, zazpi gazteren lanak, finalerako.

Finala ekaineko azken astean edo uztailera lehenengoan izango da Kultur Etxeko lokal batean eta 120 minutu izango dituzte luzera askeko kontakizun bat eskuz

idazteko, epaimahaiak zehaztutako esaldiari jarraituz. Esaldia Ramiro Pinillaren *Txiki Baskardoren ibilerak* liburutik aterako dute.

Txapeldunentzat sari bat izango da (hizkuntza bakoitzeko sari bat). Irabazleek 10 hazbeteko tableta elektronikoko bat jasoko dute eta finalistei diploma eta Getxoko edozein liburu-dendatan liburuak erosteko 50 euroko txeke bana emango zaie.



“Ergela” komedia Areetan

Datorren larunbatean, maiatzak 19, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Joseba Apaolazak eta Sara Cozarrek *Ergela* antzeztuko dute, Jordi Casanovaren komedia, Martin Agirrek euskaratuta eta Begoña Bilbaok zuzenduta. Proba psikologiko batzutura aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Baina ez du kontuan hartu psikologo misteriotsu baten trebezia; horrek tranpatia egingo dio, urduritasunak jota utzi arte. Sarrera: 10€.

Bi liburu aurkeztuko dira Botanika Jardunaldietan

Getxoko XXI. Botanika Jardunaldiak maiatzaren 19tik 24ra egingo dira eta horien barruan bi liburu aurkeztuko dira:



Getxoko zuhaitzak eta zuhaixkak eta *Landareak eta perretxikoak*. Basozaleak elkarteak antolatu du egitaraua eta, hasteko, landareak biltzeko txangoa egingo da Getxo eta inguruetan barrena, larunbatean, hilak 19, 09:00etatik 13:00etara. Arratsaldean egingo dute haien sailkapena eta igandean, hilak 20, Algortako Tellagorri plazan erakusketa antolatuko dute landare eta bestelako materialarekin. 11:00etatik 14:00etara bisitatu ahalko da.

Gainontzeko programari dagokionez, asteartean, hilak 22, hitzaldia izango da, Naturaren kontserbaziorako gizarte-ekimenaren beharra, Lurguia Fundazioaren ardurapean; eta *Getxoko zuhaitzak eta zuhaixkak* eta *Landareak eta perretxikoak* liburuak aurkeztuko dituzte Angel Asensiok, Enrique Elexpuruk eta Jose Ugartetxek. Bi hitzorduak Algortako Kultur Etxean, Villamonten, izango dira, 19:30ean. Argibideak: web@basozaleak.com eta www.basozaleak.com.

Areetxoren kontzertua Bidesariren alde

Manuel Torre Lledók zuzendutako Areetxo Ganbera Abesbatza getxotarrak kontzertu bat eskeiniko du ostiralean, maiatzaren 18an, 20:15ean, Areetako Santa Ana parrokiari, Bidesari elkartearen alde. Ama Mesedeetako parrokiako espetze talde pastoralak eta Bidesarik antolatutako errezitaldian hainbat gai interpretatuko dituzte abeslariak, hurrengo lau goibururik: *Melodia gorenak*, *Itsas abestiak*, *Maitasun eta Itxaropen abestiak* eta *Gure Herriaren Kantak*.

Amelia Rodríguez, Roberto Rodríguez eta José Antonio Fernández bakarlariak izango dira, eta Pilar Arana pianista. Bidesari etekin asmorik gabeko entitate da eta 1994an jaio zen, Bilboko elizbarrutiko Espetze Pastorealean. Aske ez dauden pertsonekin lan egiteko beharri erantzuna emateko sortu zen entitatea, norberari berreskuratzeko eta gizarteratzeko aukera emateko.

Matrikulazioa Musika Eskolan

Maiatzaren 31ra arte zabalik egongo da Andrés Isasi Musika Eskolan ikasle berrientzako izena emateko epea, datorren ikasturteari begira. Interesatuak izapideak online egin ahal izango dituzte edo bulegoetara joanez, Ama Mesedeetako 6 (Areetan) edo Basagoiti Etorbidea 77 (Algorta). 4 urtetik aurrera. Informazio gehiago: www.getxo.eus/es/musika-eskola

Bizkaia Zubiko V. Maratoi Erdia egingo da igandean, hilak 20

Igandean, hilak 20, Bizkaia Zubiko V. Maratoi Erdia egingo da, Portugaletete eta Getxo lotzen dituen lasterketa herrikoia. Bizkaiko Atletismo Federazioak antolatzen du Bilbo, Portugaleta eta Getxoko Udalekin batera. 11:00etan abiatuko da Portugaleteko La Canilla Pasealekuan; 21 kilometro bete ondoren, Areetako Bizkaia Zubia plazaren aurrean amaituko da.

Running nahiz gurpil-lerroko patinajearen modalitateetan egingo da. Izenemateak: Trirunners edo Kantxa Kirol Moda dendetan, hilaren 19ra arte. Prezioa: 25€. <http://www.21kpuentebizkaia.com>.



Getxo Saskibaloit Taldeak EBA Ligara igotzeko fasea jokatu du, Faduran

Getxo Saskibaloit Taldeak, gizonetzkoak, EBA Ligara igotzeko fasea jokatu du asteburu honetan, larunbat eta igandean, hilak 19 eta 20, Faduran. Talde getxotarrak bigarren tokian amaitu du saskibaloiko Lehen Maila Nazionala, eta horren ondorioz igoera-fasea etxean antolatzeko aukera izan du. Fase horretan bi finalerdi eta finala jokatu dira. Lehenengo finalaurrekoan, Getxo Saskik bosgarren sailkatu den Hernaniren aurka jokatu du; bigarrenen, bestalde, Deustuko Unibertsitatea Loiola Indautxuk, hirugarren sailkatuak, eta Atlético San Sebastiánek, laugarrenak, jokatu dute. Irabazleak finalean izango dira eta gailentzen dena EBA Ligara igoko da, Goierriekin batera, lehiaketa erregularren txapelduna.

Taldearen artean, berdintasuna erabatekoa izan da kategorian eta, azkenean, liga osoan zehar lehenengo tokietan ibili diren taldeak toki horietatik jausi dira, esate baterako, Nafarroako San Cernin eta Durangoko Tabirakori gertatu zaien bezala.

Berriro bi patinatzaile getxotar Espainiako Solo Dance Txapelketan

Show Getxo klubeko Naroa Etxebarriak (kadete) eta Portugaleteko Kiribil Klubeko Naroa Ruizek (haurra) parte hartuko dute berriro Espainiako Solo Dance Txapelketan ekainaren 2an eta 3an Fuengirolan. Iaz bezala, 14 urte dituen Etxebarria Euskadiko txapeldun geratu zen Solo Dance-n, eta 13 urteko Ruiz txapeldun Libre eta Solo Dance-n, Bilbon egindako Euskadiko gurpilen gaineko Patinaje Artistikoko Txapelketan. Anne Larrieta eta Ixaso Susaeta, haur mailako getxotarrak bigarren Solo Dance eta Libre modalitateetan, eta hirugarren Solo Dancen geratu ziren, hurrenez hurren. Carmen Sansebastian eta Nerea De Luis kadeteak, bigarren eta hirugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Gainera, domina bana lortu zuten getxotarrak ez diren baina GiraGetxo Patinaje Klubekoak diren Ivan Castillo juniorrak Solo Dancen (urrea), Aiesa González gazteak Librean (zilarra), eta Sandra Fernández kadeteak Librean (brontzea).

BERRI LABURRAK

Bela-itsasaldia AE Arenalde. AE Arenalde atzetik belak zabalik: Finisterre erronka izeneko itsasaldia abiatuko da maiatzaren 26an, larunbata, Bilbotik Finisterre lurmuturreraino, Alboko Esklerosi Amiotrofikoak (AEA) jotako gaixoen egoera ikusarazteko. Iñaki Elorriaga, ekimenaren eragile eta gaixotasunak jota dagoen 71 urteko getxotarra, Unai Basurko nabigatzailea eta Kepa Junkera musikaria dira itsasaldia egingo dutenak. Besteak beste, Udalaren babesa du eta ekainaren 14an amaituko da.

VI. pala motzeko Kiniela. Ostiral honetan, hilak 18, 19:00etatik aurrera, pala motzeko VI. Kiniela Bizkaitarra jokatu da, emakumezkoen mailan, Andra Mariko pilotalekuan, Getxoko Euskal Pilota Taldeak antolatuta Getxo Kirolak laguntzarekin. Toki berean jokatu zen joan den astean gomazko paletako Kiniela, lurralde bizkaitarreko etorkizun handiko pilotariek, tartean zenbait getxotar: Eva Cisneros, Ane Iturbe, Ane Bilbao eta Sandra Boada,

Zaldi-musika ikuskizuna. La Galea Klub Hipikoak *La Cenicienta (Errauskine)* ikuskizuna antolatuko du larunbat honetan, hilak 19, 21:30ean, bere instalazioetan. Lehenengo aldiz osatuko dute ikuskizuna euskal dantza talde batek, Itxas Argia, eta zaldiz ibiliko diren Klubeko ikasleek. Saioa ongintzazkoa da, Bikarte Elkartean alde; Errusia eta Bielorrusiako adingabeak aldi baterako hartzea du helburu elkarte horrek. Sarrera libre bada ere, dirua bilduko da.



Hondartza-boleia. Maider Santxok eta Katalin García Lopategik osatutako bikotea, Aixerrota Bolei Kirol Taldekoa, Euskadiko hondartza-boleiko txapelduna da bigarren urtez jarraian, gazte mailan. Sestaon jokatu da duela gutxi txapelketa Euskadiko Boleibol Federazioak antolatuta. Txapeldunekin batera beste lau bikote getxotarrek ere hartu zuten parte txapelketan, guztiak neskez osatutakoak.



Errugbia. Enisei talde errusiarrek irabazi zuen Continental Shield Txapelketa bigarren urtez jarraian. Txapelketaren finala Fadurako zelaian jokatu zen iragan larunbatean eta errusiarrek 24 eta 20 irabazi zioten Heilderberger talde alemaniarriari. Emaitzak talde bien arteko lehia estua dirudien arren, errusiarrek ez zuten arazo handirik izan txapelari eusteko. Fadurako harmailetan giroa aparta izan zen zaleen artean.



Arraunketa olimpikoa. Virginia Díaz Raspas del Embarcadero Arraun Elkarteko kideak arraun olimpikoko Munduko Kopan hartuko du parte selekzio espainiarrekin, Belgradon (Serbia) datorren ekainaren 1, 2 eta 3an. Lehiaketa hori prestatzeko asmoz, Banyoleseko (Girona) errendimendu handiko zentro batean dago kontzentratuta maiatzaren 3az geroztik. Denboraldiko lehen lehiaketa garrantzitsua da arraunlariarentzat.



Dantza. Fadura kiroldegiko dantza ikasleek, Susana Gilen zuzendaritzapean, bi garaikur eta etorkizun oparoa izan dezakeen dantzariaren saria lortu dituzte D'zanp deituriko dantza Txapelketan. Euskalduna Jauregian egin da txapelketa hori. Fadurako Oinutsik taldea 2. sailkatu zen senior mailan eta Illusion taldea, berriz, 3. juniorrean. Vera Sáezek, azken talde horretako kidea, dantzari promesaren saria lortu zuen.